



*CYDALIMA PERPECTALIS:*  
EZPELAREN ETSAIA,  
GUREAN DA

## HIZKUNTZA BAT IKASTEA

Beti esaten dut ez dakidala zer egiten bukatuko dudan, gauza batzuk zailak baitira, baina esfortzuekin eta konstantziarekin dena lortzen da.

Garunak emozioen bulkadekin funtzionatzen du, pasioarekin edo zirrararekin zerbait egiten dugunean errazagoa da ikastea. Horregatik niretzako euskara ikastea jolas bat da, non parte hartzeak eta ez irabazteak hunkitzen nauen, eta irabazten badut, hobe niretzako! Nire ikasteko moduak motibatu egiten nau, zerbait lortzean hunkitzen naizenean, nire gaitasun malguak liluratu egiten nau, gehiago nahi dut!

Uste dut beste hizkuntza bat ikasten ari zarenean, ez zarela hitzak bakarrik ikasten ari, baizik eta komunikatzeko era kulturalak eta horrek laguntzen gaitu, guztion artean, hobe elkar ulertzen. Horregatik, ikasteko: ilusioa, zirrarra, itxaropena eta gogoia jartzen dut, aurrera egiten baldin badugu, edozertan, gizalegez hobetzen dugu, horiek dira nire printzipio kulturalak gizatiarren zerbitzuan.

Ezagutzak beti askatzen gaitu, hobeak egiten gaitu. Oraintxe, niretzako euskara ikastea Himalaia igotzea bezala da, baina ezingo dut aurrera egin ez banaiz lehenengo kanpamentu nagusitik pasatzen eta ez badut aurrera egiteko material ona ziurtatzen, hori da nire euskararako tresna, oinarri teoriko ona.

Euskalgia eta bere lankideak, ikasteko nire tresnarik hoberena dira.

Norbaitek galdetu zidan: "Zergatik ikasten duzu euskara?". Nik antzinako hizkuntza delako ikasten dut, entzutea polita delako eta bere aberastasun kulturala zoragarria delako. Antropologian esaten da gelditzen den aurre-indoeuropar hizkuntza bakarra dela eta arrazoi horregatik bakarrik, munduko leku askotan ikasi beharko litzateke, izan ere harritu egingo gintuzke jakiteak gure lurraldetik kanpo zenbat pertsonak ikasten duten euskara. Egitura gramatikal oso zehatza eta zuzenekoa dauka, zerbait komunikatzen dutenean nabaritzen dena, sinestezina da, eta forma horrek liluratu egiten nau.

Gauzak ez dira egiten gustatzen zaizkizulako bakarrik, ni ez naiz euskalduna eta nire zailtasuna ikusten dut, Espainiako hegoaldekoa naiz, esan daiteke Afrikarragoa naizela beste ezer baino. Baina zaila da azaltzea zergatik ikasten dudana euskara, benetan gustuko dituzun gauzak ez dira zertan azaldu, gauza bat gustuko duzu edo ez eta nire kasuan euskarak liluratu egiten nau eta gozatzen dut oraindik asko esateko duen kultura bat dagoelako ezkutuan, garai eta paradigma berriek ez baitute begiratzen, edo oso gutxi begiratzen dute euskara bezalako kultura baten erraia.

Ikasten ari naiz, ea hurrengo artikulua euskaraz idazteko gai naizen.

Mayka Sambruno

(Euskaratua: Beatriz Buldain, Larraungo AEK)

## AMAVIR BETELURI BURUZKO GOGOETA

Beteluko Udalak, Araizko Udalaren babes politikoarekin, lortu zuen duela hogeit hamar urte, gaur egun Amavir Adinduen Egoitza ibar honetara ekartzea.

Beteluko Udala urte hauetan ilusio handiz aritu da eta 300.000 euro baino gehiago bideratu ditu, modu batean edo bestean, proiektu hau sustatzeko eta egonkortasuna ematen laguntzeko. Pozik gaude, izaten ari den bilakaeraz. Estutasun ekonomikoak izan ditu, baina beti izan da kalitatearen eredu bat, eta horren lekuko azken aldiari Loturarik Gabeko Ziurtagiria lortu izana izan da. Hau dena, langile eta enpresari esker. Askoren ahaleginari esker, alegia.

Egoitzen sektore honen lan baldintzak eta soldatak hobetzea ona litzateke. Baina gai honek ez dio Beteluko egoitzari bakarrik eragiten. Orokorrean, sektore osoaren erronka da. Horregatik, erantzukizuna ezin zaio Beteluko Udalari aurpegiatu. Hor daude, esaterako, Dependentsia Legea, Lan Itunak... Adibidez, Nafarroan ez dago sektore honetarako Lan Itun propiorik. Ondorioz, Estatuko Lan Ituna aplikagarria da. Noren ardura da Nafarroa Lan Itun propiorik ez izatea? Legebiltzarrarena?, Gobernuarena?, Sindikatuena?, Guztiena? Udalarena ez, hori seguru. Joan den urtean izandako legebiltzarrieden bisitan, Lan Itunaren gai hau nahiko garbi geratu zen, baina guk dakigunez, honi buruz ezer gutxi edo ezer ez da egin orain arte.

Lan Itunaz gain, tokian tokiko langile eta enpresen artean lan-baldintza propioak negoziatu eta adostu daitezke. Negoziazio horietan Udalak parte har dezake? Bai. Eta hori da hain zuzen ere Beteluko Udalak egin zuena enpresak zailtasun ekonomikoak gainditzeko Estatuko Lan Ituna aplikatzeko asmoa adierazi zuen garaian. Orduan, Udalak apustua egin zuen Estatuko Lan Ituna ez aplikatzeko. Baina orduko sindikatuaren (ELA) aholkuari jarraituz, langileek uko egin zioten gure proposamenari (estatukoa baino nabarmen hobearen itun bat). Gero, jakina den bezala, estatuko Lan Ituna indarrean jarri zen, langileek ELAri bere konfiantza erretiratu zioten, eta gaur arte.

Orduko hiruko mahaiaren esperientziaren ondoren, Beteluko Udalak ez du parte hartu langile eta enpresaren arteko negoziazioetan. Etorkizunean ikusiko da. Egia da, langileek ordukoaz egiten duten kontakizun faltsutuak ez duela laguntzen.

Gaur egun, bi elementuk markatuko dute etorkizuna. Batetik, Nafarroako Gobernuko Egoitza Plazak Kudeatzeko onartu duen Esparru Akordioa. Honek, epe ertainera zailtasunak ekar ditzake herri eremuetako egoitzetara. Bestalde, Estatuko Lan Ituna berritzeko prozesuan da. Noizko? Nolako izango da?

Beteluko Udala.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



04 ESKOLATIK MAILOPERA

05 BERTSO BERRIAK: Haydee Calderon.

06 ELKARRIZKETA: Lekunberriko teileria

11 NOR DA NOR?

13 KUXKUXEAN: Apirileko zorion agurrak.

14 BATZARRE

17 LUZE ETA ZABAL

18 ERREPORTAJEA: *Cydalima perspectalis*.

20 KULTURA

23 KIROLA

26 OREKA OSASUNTSUA

31 KONTU TXIKIAK

• **MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzi eta Uztegi.

• **ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.  
L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

• **ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• **ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Ibarberri Ikastetxea, Lontxin Zubillaga, Agustin Saralegi, Monika Gastesi, AEK euskaltegia, Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Aralar Musika Eskola eta Igone Vazquez

• **PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

• **MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

• **TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

**LABRIT**  
MULTIMEDIA



## Euskaraz mintza

Kaixo lagunak, Ibarberri eskolako 1. maila B taldeko ikasleak gara. Aurreko ikasturtetan bezala, aurten ere EUSKARAZ MINTZA proiektua martxan jarri da gure ikastetxean. Zeinen ongi!!

Zer den hori?

Ba, proiektu honen helburu nagusia, guk, ikasleok, jolas tradizionalen bitartez, gelatik kanpo euskara erabil dezagun lortzea da. Horretarako, begirale bat dugu, Haur Hezkuntzatik hasita, Lehen Hezkuntzako 2. maila bitarteko ikasleekin jostetan aritzen dena jolastorduetan irakasleekin koordinaturik.

Monika Gastesi da gure begiralea eta urte dezente darama guri, etxean eta lagunuen artean barneratzen ditugun hizkuntza erregistroak eskaintzen. Berarekin jolas berriak, baita betiko jolasen moldaketak... ikasten ditugu eta euskaraz jostatzeko aukera ezin hobea izaten dugu.

Gu ostegunero, oso gustura aritzen gara Monikarekin lagunuen artean euskaraz jostetan. Berarekin ikasten ditugun jolasak hainbat tokitan edota egoera desberdinetan praktikan jartzen ditugu: esku-jolasak, oilo-itsua, patata errea, soka-saltoa... Benetan dibertigarria izaten da!! Guk behintzat EUSKARAZ jolasten gozatzen dugu!!

Ibarberriko 1. B mailako ikasleak



eskolatik  
mailopera



**aseguru gintza XXI**

**ASEGURU AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**NEKAZARI, S.L.**

**Kubota**  
**STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazarisl@hotmail.com



**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
info@bidegoxo.com



## GALDUTAKO GILTZA-JOKOA ETA BETAURREKOAK

Arribeko Osasun-etxean betaurreko batzuk eta giltza-joko bat azaldu dira. Jabeak haien falta sumatu badu, etor dadila edo hots egin dezala 948 513 087 telefono zenbakira.



## ORAINDIK EZ ZARA BOLUNTARIO EGIN?

Ibarberriko Ikas Komunitateak boluntarioak behar ditu talde elkarreragileetan parte hartzeko. Animatu eta eman izena 948 504 210 telefono zenbakian edo [cplekumb@educacion.navarra.es](mailto:cplekumb@educacion.navarra.es) e-postaren bitartez.



## GAZTE PROGRAMARAKO IDEA BILKETA

Larraungo EH Bilduk Gazte Programa osatzeko bilera irekia egingen du datorren apirilaren 5ean, iluntzeko 20:00etan, Kantinan.

## bertso berriak Mailoperi jarriak: Haydee Calderon (Iribas)

Gure hizkuntzak ei du  
egoera **larria**  
ez zaizu maiz etortzen  
gure **belarrira**  
baina halare dugu  
ibiltzeko **egarria**  
goazen ematera ba  
mezi duen **aldarria**.

**Berriz ere hemen da  
gurean Korrika**  
honek ekarriko du  
gurera musika  
soinuarekin edo  
partaideei deika  
ta behar ez dezagun  
gehio errepika.

Doinua: Dama gazte xarmant bat.



**Maddirentzako puntua:**  
Udaberrian sartu  
gara orain gutxi

**Oinak:**  
Argia, ikusia, aisia, aldia.

# Nafarroako Mendialdean aurkitutako lehen teileria

*Gutxienez XVII. mendekoa dugun Teileriko zubiaren gainetik igaro eta aurrera eginez aurki dezakegu. Orain gutxi arte ereiteko erabiltzen ziren alorrez inguraturik zegoen. Artzainegi parajearen eta Kateixiki barrutiaren artean kokaturik. Ezkutuan egon da mende eta erdi baino gehiago Lekunberriko Teileria. Iturraskarriko kideen lanari esker aurkitu da Nafarroako Mendialdean gaur egun ezagutzen den teila labe bakarrenetakoa.*

## Noiz hasi zineten hemen lanean?

**Juanjo:** Irailaren lauan hasi ginen. Hasieran uste nuen galtzina-labe bat izanen zela. Sasiz betea zegoen errege-bidea garbitzea zen Iturraskarriko langileon asmoa, baina bide ondoan galtzina-labe bat izan zitekeena ikusita hori ere garbitzea erabaki genuen. Iturraskarriren bideen ondoan dauden kultur ondare arkitektonikoak zaindu eta kontserbatzea ere bada gure helburua. Orain arte garbitokiak eta iturriak izan dira berreskuratu ditugun gehienak.

## Zaborrez beterik zegoen teileria...

**J:** Bai. Garbigailuak, hozkailuak, ur-botilak, plastikoak... Obratako hamabost zaku handi atera genituen zaborrez beterik. Kontuan hartu behar dugu 90eko hamarkadara arte herri hauetan ez zegoela zaborrarentzako edukiontzirik eta halako hondakinak, leize, koba eta zuloetara botatzeko

*“Labekada bakoitzean 2.000 edo 8.000 teila sar zitezkeen”*

ohitura zegoen. Zaborra ateratzen gindoazela, ohartu nintzen paretak eskudra egiten zuela eta galtzina-labe gehienak zilindrikoak izan ohi dira. Zabor gehiena kendu ondoren, harri handi batzuk ere bazirela ikusi genuen eta goitik baino behetik ateratzea errazagoa izango zelakoan, behealdean hasi ginen lanean.

## Eta orduan ohartu zineten ustez karobia zena teileria zela?

**J:** Bai. Eskudra hark eman zidan lehenengo pista. Eta ondoren, beheara jaitsi ginenean, aurrealdean paretak handi bat zuela ikusi genuen.

## Zenbat metroko zabalera du?

**J:** 4 metro eta 20 zentimetro inguru dauzka zabalera, metroko sakonera eta bost metro inguruko altuera. Labe honek bi sarrera edo galeria dauzka, erregaia sartzeko erabiltzen zena. Egurraren aurretik ainarra edo otea erabiltzen zuten, sua azkar pizteko, eta horren gainean egurra. Behin su hartu eta labea berotzen zenean, goian zeukan parrilan teilak jartzen ziren egosteko. Parrila zuloetara txikiz beterikoa izaten zen beroa gorantz ateratzeko.

## Eta parrila hori zein materialekin egiten zen?

**J:** Kasu honetan hondar-harriekin egina dago eta behealdean adreilua edo hondar-harria izaten zen. Labekada bakoitzean 2.000, 6.000 edo 8.000 teila sar zitezkeen egosteko. Kontuan hartuz hemengo zenbait etxetako teilatuak 20x20 metrokoak direla, etxe bakar batentzako 8.000 eta 10.000 teila behar zituzten. Metro



karratu bakoitzeko hogei teila, gutxi gorabehera.

### **Teilak egosi aurretik nola egiten zituzten?**

**J:** Buztinarekin egiten zituzten eta zenbait kasutan lokatzarekin nahastun zuten. Baina gauza bat zuten behar-beharrezkoa, ura. Horregatik, teileria gehienak erreka eta ibaien ondoan eraikitzen ziren. Neguan, udazkena pasa eta gero, buztina ekartzen zuten gurdietan. Eta normalean harriekin egindako putzu modukoak izaten zituzten, bertan buztina urarekin nahasi eta oinekin eta makilen laguntzaz zapaldu egiten zuten, masa moduko bat egiten zuten arte. Ondoren hainbat hilabetez beratzen uzten zen, biguntzen. Teilak udan egosten ziren. Euriarekin edo elurrarekin ezinezkoa baitzuten egostea.

### **Eta nola ematen zieten teila forma?**

**J:** Forma emateko molde batzuk erabiltzen zituzten. Molde horiek udalarenak izaten ziren, gainera udal bakoitzak bere moldeak zituen, bere pisu eta neurriekin.

### **Teilerietan lan egiten zuten langileak partikularrak izaten ziren ala kontratupekoak?**

**J:** Alfredo Moraza historialari eta arkeologoaren arabera, gehienak kontratatutakoak izaten ziren eta duintasun gutxiko ofiziotzat zuten garai hartakoek. Teileria gehienak herri-lurretan egon ohi ziren eta ez zuten jaberik. Baina badakigu bertan lan egiteko kontratatutako teilagin gehienak Ipar Euskal Herrikoak zirela. Kasu gehienetan lapurtarrak.

### **Beraz, behin moldeekin teilari forma emanda, parrilaren gainean jartzen ziren...**

**J:** Bai eta labealdi bakoitzak gutxi go-



rabehera hiru edo lau egun irauten zuen.

### **Eta egun horietan, bertan egoten ziren labea zaintzen, ikazkinen modura?**

**J:** Oso urrun ez ziren ibiliko. Sua kontrolatzen ibili behar zuten, bestela teilak lehertu edo desitxuratu egin zitezkeen. Gainera, teileriek, labeaz gain, ondoan teilen biltegia izaten zuten egindako teilak gordetzeko. Eta teilaginak bizi edo egoteko eta tresnak biltzeko bigarren etxola bat ere izaten zen inguruan.

### **Hemen halakorik ere aurkitu duzue?**

**J:** Txabola baten aztarnak aurkitu ditugu, baina nahiko txikia, ziur aski tresnak erabiltzeko edo teilak gordetzeko erabiliko zutena. Besterik ez dugu aurkitu oraingoz. Lan asko daukagu egiteko.

### **Laranja koloreko teilak izaten ziren...**

**J:** Bai. Hemengo buztina nahiko gorria zen. Lurrak bere koloreak dauka eta kasu honetan, manganeso edo burdin oxido dezente dauka. Hemengo harri guztiak ostio-harriak dira,



Goian, Iruña eta Donostia lotzen zituen errege-bidean dagoen Teileriko zubia. Behean, teileria eraikitzeko erabili zen hondar-harria. Arg: Labrit.

*“Teilak, hondar-adokinak eta baldosak egiten ziren”*



Teileriko bi galeriek zutik jarraitzen dute, mende eta erdi baino gehiago erabili gabe egon arren. Arg: Labrit.

bertakoa den harri mota da, oso be-reizgarria. Ostio mendiaren inguruan dagoena. Badirudi garai batean Ostio mendia, sumendi bat izan zela. Geologoen arabera, sumendia baino tximinia bolkaniko bat omen zen. Teileria eraikitzeke besteak beste ostio-harria erabili zuten, pisu handikoa da, dentsitate handikoa. Forma bobila daukate harri horiek, tximinia bolkanikotik atera zirenean mendi magaletik behera bueltaka joandakoan hartutako forma da.

#### **Eta temperatura altua jasaten dute?**

**J:** Bai badirudi temperatura altua aguantatzen duela, baina ez da erregogorra. Horregatik labearen barnealdea eraikitzeke hondar-harria erabiltzen zuten. Parrilako zuloak txikiak ziren, baina zulotxo asko zituen, proportzionatuak eta nahiko simetrikoak. Bestela, zulo batzuetatik besteetatik baino bero gehiago aterako zen eta teila batzuk erre egingo ziren. Garrantzitsua zen beroa uniformeki banatzea.

#### **Labeko bi galeriek ez zuten aterik?**

**J:** Ez, badirudi ezetz. Beroa gorantz joaten zenez, itxiz gero ito egin zitekeen, beraz, haizea sartzeko irekita uzten zuten eta sua erregulatzen joaten ziren erregai gehiago edo gutxiago botaz.

#### **Teilez gain beste zerbait ekoizten zuten hemen?**

**J:** Hiru gauza egiten ziren hemen: teilak, hondar-adokinak eta baldosak. Garai bateko etxe zaharretan jartzen zituzten baldosak irregularrak eta askoz ere lodiagoak izaten ziren.

#### **Eta material berdinarekin egiten ziren hirurak?**

**J:** Bai, moldearen forma bakarrik aldatzen zen. Teiletan markak jartzen zituzten, kasu askotan mezu iraingarriak ere. “Zure bizilaguna inozo hutsa da” eta halakoak. Normalean erdaraz idatzitakoak ziren. Eta xeblekeria asko aurki daitezke garai hartako teiletan langileek idatzitakoak.

#### **Teileria garbitzen hasi zineten egun hartan bertan aurkitu zenuen labearen sarrera...**

**J:** Bai. Aurrealdeko pareta harriz estalita zegoen, baina nik sarrera bat izanzen zuenaren susmoa neukan. Pixkanaka behetik harriak kentzen hasi ginen. Zazpi langile ibili ginen hemen lanean. Momentu batean pikotxarekin ezinezkoa zitzaigun aurrera egitea eta bi barra handirekin palanka eginez hasi ginen harriak banan-banan kentzen. Harri gehienak kendu eta jatorrizko paretatik gertu ginela, barra finago bat paretan sartzen hasi eta halako batean barruraino sartu zen. Orduan ohartu ginen gutxienez sarrera bat bazela eta ez zegoela erorita. Galtzina-labeetan sarrera izaten da normalean erortzen den lehena. Zulotxo hartan esku-argi bat sartu nuen eta pizterakoan galeria guztia ikusi nuen, baina burua ezin nuen sartu ezinezkoa zitzaidan zuen sakontasuna eta bobedak ikustea.

#### **Beraz, oraindik ez zenuten argitu galtzina-labea edo teileria zen...**

**J:** Ez. Baina eguerdian Iturraskarriko lankideekin lanaldia bukatu eta gero, buruari bueltaka hasi nintzen eta



arratsaldean bueltatu egin nintzen. Pikotxa batekin zulotxo ireki eta barrura sartzea lortu nuen. Eta orduan bai, argi eta garbi ikusi nuen galeria osoa primeran kontserbaturik zegoela, eta hura ez zela galtzina-labea. Hurrengo egunean, bigarren galeria aurkitu genuen.

**Egurra bi sarreretatik sartzen zuten?**

**J:** Bai, biak batera pizten ziren, parrila laukia zen eta sua denean berdin banatzen zen. Bi galeriak berdinak dira.

**Hemengo lanak amaitu dituzue, oraingoz...**

**J:** Bai, Iturraskarrikook bukatu genituen garbitze-lanak eta Lekunberriko Udalarari honen berri eman genion. Beraz, euren erabakia da orain hau berreskuratuta eta zaintzea edo ez.

**Javier Irigoien:** Hemendik aurrera eta Udalaren erabakia iritsi bitartean, garrantzitsua da behar bezala babestu eta segurtasun neurriak jartzea. Horretarako estali egin da. Oraindik inguruan bada garbitzen nahikoa lan eta hemendik aurrera Ondare Kultur Taldeko kideok auzolanen bitartez laguntzeko prest agertu gara. Jendartean halako ondareak duen garrantziaz ohartarazi eta gizarteratzea ere garrantzitsua iruditzen zaigu. Ondoren, Udalak berreraikitze proiektu bat egitea erabakiko balu, hori profesionalak egin beharko dute.

**Berreraikitzea erabakiko balitz zein pauso eman beharko liriateke?**

**J:** Teileriaren txosten tekniko bat egin beharko da, dituen ezaugarriak, neurriak funtzionamendua eta nolokotasunak aztertuz. Bestetik, Vianako Printzipeari ere jakinarazi behar zaio berreraikitze baimena eskatuta. Eta behin hori eginda, azterlan arkitektoniko bat egin behar da berreraikitze-ko. Egia da, nahiko ongi kontserbatu



dela, baina berreraikitze partziala edo osoa egin daiteke. Hau da, paretak bizkortzera mugatu gaitzke edo osorik berreraiki. Teileria hauek teillatu bat ere izaten zuten. Beraz, dauden paretak bizkortu eta jatorriz zuen altueraraino altza beharko liriateke eta ondoren teillatua eraiki.

Zabor ugari atera behar izan zuten Iturraskarriko lagunek teileriaren gainetik. Arg: Labrit.

**Zergatik da horren aurkikuntza esanguratsua?**

**J:** Nafarroako mendialde osoan ez da halakorik aurkitu. Eta Nafarroa osoan ere oso gutxi dira ezagutzen direnak. Larragakoa, Erriberrikoa, Uxuekoa... Horiek tipologia ezberdina dute, pareta guztiak adreiluz egindakoak dira eta ezberdinak. Baina Mendialde osoan oraingoz aurkitu den bakarra da hau. **[Elkarrizketa hau kaleratzeaz zela jakinarazi digute, Intzan ere oraindik zutik jarraitzen duen teileria bat badela].**

**Javier:** Gurean, Arruitzen, Azpirotzen etab. baditugu teileria izena duten toki-izenak. Kasu honetan teileria handia zen, milaka teila egiten ziren. Baina garai hartan baziren askoz ere

*“Baliteke 1700. urte ingurukoa izatea teileria hau”*

**Antzonia**  
BASERRIKO GAZTA  
948 513 468  
www.antzonia.com  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JAKINAK ETA KONPONTZEN  
634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA - HARATEGIA -**  
**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

## Aurkikuntzaren gazi-gozoak



Teileriaen aurkikuntza herritarrentzako pozgarria izan bada ere, ezusteko ederra hartu zuen hamaika urteko mutil kuadrilla honek udako oporretatik bueltan etorri zirenean.

Ibai Santos, Mattin Goikoetxea, Xabier Jauregi, Xabier Iribar, Unax Navascues, Mikel Jauregi, Ander Satrustegi eta Unax Mayayo dira eta joan den udaren hasieran txabola txiki bat eraiki zuten estalirik zegoen teileriaen sarreraren parean. *"Makilekin eraiki genuen eta ia uda osoa eman genuen hemen jolasten. Irailean hautsita aurkitu genuen txabola, ez genekien zer gertatu zen. Ez gaude haserre baina pena pixka bat hartu genuen"*. Gertutik jarraitu dute ondoren egin diren garbitze-lanak eta beraiek txabolara jaisteko eraikitako lurrezko eskaile-ri esker atera ziren lurpean zeuden zenbait teila zati laranja. Ondorengo aurkikuntzarako beste pista garrantzitsu bat izan zena.



Goitik teilak egosteko parrila ikus daiteke. Arg. Labrit.

txikiagoak, ehunka batzuk bakarrik egiteko erabiltzen zituzten labe txikiak. Baliteke Larraunen halako gehiago izatea ezkutaturik.

**J:** Eta Euskal Herriko gainerako autonomia-erkidegoetan ere oso gutxi dira gelditzen direnak edo ezagutzen direnak: Zegamakoa, Arrasatekoa... Hauek antza gehiago dute Lekunberrin aurkitu dugunarekin. Hartz egindakoak dira, bi sarrera dituzte eta normalean mendiaren maldaren kontra eraikitakoak dira, goitik teilak errazago sartzeko parrilan. Zegaman eta Arrasaten berreraikitzen lan onak egin dituzte eta han teilatu eta guzti ikus ditzakegu. Udan egiten zen lana izanik ere, tarteka euria egiten zenez, teilatua babesteko izaten zen.

### Lekunberriko teileria noizkoa den badakigu?

**J:** Erromatarren garaitik datoz teileriak. Euskal Herrian XVI. mendetik aurrera hasi ziren eraikitzen. 1844ko dokumentu historiko batean Lekunberriko teileria buruzko informazioa eskuratu dugu. Bertan, lan-bal-dintzak zehazten dira. Baina baliteke 1700. urte ingurukoa izatea teileria hau. Hau da, orain dela hiru mende ingurukoa. Ordurako Albiasurantz doan bidea eginda egonen zen, herriak aurretik sortuak zirelako. Bigarren dokumentu bat ere badugu, 1893koa, eta aipatzen du "Teilerizar" martxan zegoela. Dena den, baliteke Lekunberrin teileria bat baino gehiago eraiki izana.

### Eta noiz utzi zitzaion hemen teilak ekoizteari?

**J:** 150-160 urte gutxienez darama erabili gabe. Paraje honi "Teileri" deitu izan zaio beti, egungo aitona-amonak ere erabiltzen duten toki-izena da. Baina ez dugu topatu teileria honen berri zuen inor. Eta arraroa da, herrietik nahiko gertu dagoelako eta hurrentzako ere leku erakargarria delako jolasteko. Oskotzeneko Juan Pedro Albiasurengandik jakin dugu bere aitona hamalau urterekin Etxarritik Lekunberrira bizitzera etorri zela eta aitona teileria martxan ezagutu zuela. Hori izan da jaso dugun testigantza bakarra.

### Zaborrez estalirik gelditu izanak agian mesede ere egin dio bere kontserbaziorako...

**J:** Bai. Goiko zatia erortzeari esker kontserbatu dira ziurrenik beheko bobedak horren ongi. Erori egin zenez, jendeak ez zuen bertatik harririk hartzen. Orain harri guztiak bertan daude eta jatorrizko harriekin zaharberritzeko aukera daukagu. Ikusi egin beharko da zenbateko inbertsioa egin beharko litzatekeen eta zein erabaki politiko hartzen diren.

**Javier:** Baina zalantzarik gabe, gozoki bat da bai bertakoentzat eta baita kanpotik bisitan datozenentzat ere. Bertatik pasatzen den erreka ere oso ongi mantendurik dago eta toki ederra da bertako ogibide hau ezagutzera eta bisitatzeko.

# Nor da Nor?

Aurreko alean kaleratutako argazkia  
Beteluko inauterietan ateratakoa da.

**Ezkerretik eskuinera:** Tere Sotil, Izaskun  
Iriarte, Mila Pereda, Ana Buldain eta Kontxi  
Arraztio.



nor da nor?

# Nor da Nor?



*Nortzuk azaltzen dira  
argazkian?  
Non ateratakoa da?  
Noiz ateratako argazkia da?*

Bidal iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako  
mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu  
eta kudeatuko dugu.



**Lagunasesoría S.L.**

Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)



**SOTIL GARAJEA**

**BETELU**

948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)



**OKM**

**ABOKATUAK**

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

## Etorkizun hurbilean etengabe



●● Mikel Hernandorena



●● Andrea Etxarri

lepa Andrea, zer moduz? Gaur egungo gizartean eta gure bizitzan, ondoren egin behar dugun horretan etengabe pentsatzen gaudela deritzot, askotan momentuaren perspektiba galtzen dugularik. Autoan goazenean, lanean nahiz ikasten egin behar ditugun gauzak; bazkaltzen gauden bitartean, arratsaldean burutu behar ditugun gauzak... Duela gutxi, lagun batekin hizketan nengoela, honakoa bota zidan: "Zenbat aldiz dutxatu zara, dutxatzen?" Oso galdera ona benetan, eta momentuan "oso aldi gutxitan" erantzun nion. Askotan gure bizitzan pilotu automatikoarekin goaz denboraren zatirik handiengan.

Etorkizun hurbilean ibiltzearen jokabide hau, faktore askok baldintzatzen dute. Horien artean sakelekoaren eta WhatsApparen presentzia nabarmenduko nituzke. Zenbat alditan pasatzen zaigu gure lagunekin edo familiarekin egon eta dei edo mezu batek beste zeregin nahiz pentsamendu batera eramaten gaituela?

Kontrako aldean, askotan zeozer egiteko gogoia dugunean, geroago egingo dugunaren ideiarekin konbentzitzen dugu gure burua, etorkizun hurbil horretara pauso bat emanaz. Baina behin baino gehiagotan, nagikeriak atzera botatzen gaitu. Zergatik ez dugu burutzen nahi dugun hori momentuan bertan, ahal badugu behintzat? "Ez, lasai, geroago egingo dut" esaldiarekin konbentzitzen dugu gure burua. Eta askotan honakoa gertatzen da: ez dugu momentuaz gozatzen, eta ezta gero egiteko asmoa genuen hori burutzen ere.

Momentua gehiago bizi beharko genukeela uste dut, eta gero etorriko dena, etorriko da. Noski, eginbeharrak eta betebeharrak ditugula ezin dugu ahaztu, baina eginbeharrak edo betebeharrak ditugula nahiz aisialdiaz gozatzeko parada dugula, momentuaz gozatu. Atlético Madrileko entrenatzailea den Simeonek dio futboleko partiduz partidu joan behar dela. Bizitza ere momentuz momentu bizi beharko genukeela uste dut. Zer iritzi duzu gaiaren inguruan Andrea?? Hurren arte!

Aupa, Mikel! Ongi, bai arrazoi duzu, autoan nengoela Mai-loperako idazteko azken eguna gaur nuela pentsatzen nengoen. Zenbatetan gidatzen ditugu kilometroak nondik pasa garen ere jakin gabe. Gure atenzioa ez baitzegoen horretan, beste lehenagoko edo geroagoko pentsamenduetan baizik.


Ados nago aipatu duzun lehen gauzarekin, askotan ez dugula egiten ari garena bizitzen. Gure gorputz fisikoa orainean dago, baina gure burua?

Iragan eta geroaren arteko lerro horretan aurrera eta atzera. Izan ere, ikerketa askok diote jendearen gehiengoak bere eguneko denboraren %40 baino gutxiago dedikatzen diola oraina bizitzeari. Hurrengo urratsa non emango dugun pentsatzen aritzen gara, ematen ari garen urrats hori bizitzen egon beharrean. Eta honek arazo bat sordezake, arreta jartzen dugun hori bizi izan ez bagenu bezala da.

Kasu honetan zuk aipatutako WhatsApparen presentziak gizakion arteko kalitatezko arreta guztiz kaltetzen ari dela sentitzen dut, aplikaziotik kanpo bai, baina baita barruan ere. Zenbatetan geratzen dira entzun gabeko gauzak eta erantzun gabeko mezuak? Bestetik, gero eta gehiago dira leku batera joan eta sareetan argazkiak igotzeko asmoarekin edo sakelekoarekin egozteagatik benetan leku horretan bizi zitzaketen emozioak galtzen dituztenak. Gainera, azkartasuna eta berehalakotasuna eskatzen diogu elkarri eta honek arretaz ez bizitzera bultzatzen gaitu, geure burua entzun gabe bizitzera, estresa eta presak oraina gozatzearen etsaiak baitira.

Uste dut oraina disfrutatzen jakiteak (entrenamendu sakona behar duena) beste edozerk baino plazer gehiago eman dezakeela. Edozein momentu eta adinetan gainera. Amañirekin askotan hitz egiten nuen honetaz, eta etorkizuna non zegoenari garrantzia kentzen genionean gozatzen genuen gehien, Cola Cao beroa eskuetan sentituz eta elkar entzunez. Pare bat aholku: utzi tarte batez gailu guztiak alde batera eta jar zaitez oraina bizitzen, ez du bueltatzeko asmorik eta!





**Egoitz Oreja Altuna**  
Apirilaren 5ean, 10 urte.  
*Zorionak txapeldun!! Ongi pasa zure eune. Muxu haundiet etxeko guztin partez!!*



**Erik Otermin Iriarte**  
Apirilaren 19an, urte bat.  
*ZORINAK ERIK!!!! la urtebete pasa da jaio zinela. Maitia segi gure bihotzak alaitzen. Muxu pottolo bat Elene, Aner, Danel eta Arribeko familiaren partez.*

**Joar eta Ekia Agirrezabala Valencia**  
Apirilaren 12an, 5 urte.  
*Zorionak bikote!! Prestatu belarritxo horiek... Maite zaituztegu, Lekunberritik ilargira eta buelta!!!  
Urko, aita eta ama.*



**Amaia Sestorain Anguera eta Asier Sestorain Rubia**  
Apirilaren 24an, Amaiak 5 urte eta Asierrek 33 urte.  
*Familia guztiaren partez zorionak eta egun polita pasa dezazuela! Asko maite zaituztegu!*



**Maren Michaus Landa**  
Apirilaren 12an, urte bat.  
*Zorionak zure lehenengo urtebetetzean ttikitto! Muxu handi bat zure familiaren partez.*



**Iraide Aldaregia Balda**  
Martxoaren 28an, 5 urte.  
*Zorionak Iraide! Jada 5 urte, eskuko behatz guztiak! Segi beti bezain irribarretsu. Haizea, Aimar eta familia guztiaren partez.*



**Jule Salvatierra**  
Apirilaren 14an, 10 urte.  
*Zorionak maitia! Gozatu zure eguna eta segi gure bihotzak pozez betetzen. Asko maite zaitugu!!!  
Aita, ama eta Eder.*



**Jon Vicente Alkorta**  
Martxoaren 4an Jonek 6 urte bete zituen!  
*Muxu haundi bat etxekoan partetik!!!*



**Maren Elordi Ilarregi**  
Apirilaren 10ean, 4 urte.  
*Ongi pasa politte zure urtebetetze egunean. "Handitzen -handitzen ari zara handitzen..."  
Jarraitu hain jator eta alai. Zure familiaren partez, muxu handi batekin.*



**Hodei eta Xabat**  
Apirilaren 4an eta 24an, 2 eta 5 urte.  
*Zorionak eta muxu pilo bat etxeko guztin partez!!!*

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

## HERRITARREK BAT EGIN DUTE EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNEAN

Joan den martxoaren 8an izan zen Emakumeen Nazioarteko Egunean eskualdeko herritarrek, baina batez ere emakumezkoek bat egin zuten herri eragileek deitutako elkarretaratzeetan. Larraundarrak Lekunberriko udaletxe parean elkartu ziren eguerdiko hamabietan eta bertan elkarretaratzea egin ondoren, zenbait herritarrek Mendukilon egin zen bisita berezian parte hartu zuten. Hilabete osoan zehar jarduera ezberdinak izan dira eta tartean urteroko tradizioari jarraituz, emakumeen afari eta pintxo dastaketa bereziki arrakastatsuak izan ziren.

Araitz eta Betelun berriz, ehun emakumezko-tik gora elkartu ziren eta Atallutik Beteluraino egin zen manifestazioan parte hartu zuten. Ondoren bazkari baten bueltan elkartu ziren Beteluko Zigarri elkartearen eta bazkalostean Tximuutxe Bilgune Feministak ibarrean landu beharreko gaiei buruz aritu ziren. Datozen hilabeteetan bereziki emakumezkoen zuzendutako hainbat jarduera antolatzea aurreikusten dute.



## TXOTX ETA TXOTX ARTEAN...

Joan den martxoaren 23an barrikotea izan zen Beteluko Ostatuan. 55 lagun elkartu ziren afaltzera. Sagardotegiko menua dastatzeko aukera izan zuten eta atarian jarritako sagardo kupelaren bueltan ibili eta gero, goizaldera arte luzatu zen parranda.



## LITERATUR SOLASALDIA IZANEN DA MAIATZAREN 14AN MIREN AGUR MEABE IDAZLEAREKIN

Datorren maiatzaren 14an, asteartea, Miren Agur Meabe idazle bizkaitarrarekin literatur solasaldia izanen da Larraungo AEK euskaltegian, arratsaldeko 18:00etan.

Hiru libururi buruzko solasaldia egingen da: "Tximeletak", "Kresalaren taberna" eta "Titare bete zorion". Parte-hartzeko aurrez hiru liburuak irakurtzea komeni da. Irakurri eta gozatu!

## OSTIRAL SANTUAN KONTZERTUA ESKAINIKO DU JESUS JAIMERENA ABESBATZAK LEKUNBERRIN

Datorren apirilaren 19an, Ostiral Santu egunean, arratsaldeko 20:00etan Jesus Jaimerena abesbatzak kontzertua eskainiko du Lekunberriko Parrokian. *Adoro Te Devote*, *Requiem* (Fauré), *La Creación* (J.Haydn) eta *The Armed man* (Jenckis) lanak abestuko dituzte besteak beste.

## ARGI BERRIAK AZKARATEN

Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza bati esker, herriko argiztapena aldatzera animatu da Azkarateko Kontzejua. Herriko plazaren bueltan zeuden farola guztietako argiztapena aldatzeko erabakia hartu da. Kale-argien luminaria guztia aldatu eta orain kontsumo baxukoak jarri dira, lehen zeudenekin alderatuz hamarretik bat baino gutxiago kontsumituko dute. *"Argi guztiak puntu batetik kontrolatzen dira eta pizten direnetik gauerdira arte duten indar guztian egongo dira pizturik, baina gauerditik aurrera erdira jaitsiko da indarra, begi bistara halako jaitsierarik ez bada nabarituko ere".*

Proiektua publiko egin eta gero esleitu zitzaion enpresak aurrekontuarekiko %20ko jaitsiera egin zuen eta Azkarateko Kontzejua 14.478,18 euroko gastua ordaindu beharko du. Gastu honen erdia gutxi gorabehera Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzari esker berreskuratuta ahal izango da.

## AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

Lekunberriko Udalak 15.000 euroko diru partida bideratuko du herritarrek hautatzen duten proiekturako. Martxoaren 25ean amaitu zen proposamenak aurkezteko epea eta horiek aztertu eta baloratu ondoren dagoeneko proiektu guztien artean erabakitzeko bozketa zabalik dago.

Honakoak dira aurkeztutako proiektuak:

- Kiroldegiko Rokodromoa berritzea.
  - Peñara igotzeko sarbidea konpondu eta aisialdirako altzairuak jarri.
  - Azin erreka garbitzea.
  - Kiroldegiko muskulazio gela hobetu eta egokitzea.
- Apirilaren 5an arratsaldeko 18:00etan amaituko da proiektuak bozkatzeko epea. 14 urtetik gorakoek izanen dute boza emateko aukera.



## APIRILAREN 8AN PASAKO DA KORRIKA LARRAUNDIK

Dena prest dago 21. Korrikari ongietorria emateko. Datorren apirilaren 4an irtengo da Garestik eta apirilaren 8an arratsaldeko 19:00ak aldera sartuko da Larraunera Uitzitik.

Azken aste hauetan, AEK-ko langileak eta Korrika Batzordeko kideak buru-belarri ibili dira ekitaldi honetarako kanpaina egiten. Tartean hainbat jarduera ere izan dira. Joan den hilean Txokolipuien bi saio izan ziren txikientzako eta 20 haur inguru elkartu ziren jubilatuetan saio bakoitzean.

Hilabeteko azken igandean berriz, ekitaldi berezia egin zuten Mendukilon eskualdeko, trikitilari, bertsolari, abeslari eta musikariekin. Ondoren, 85 lagun inguru elkartu ziren Astizko Aterpean egin zen bertso-bazkarian. Bertan, bertsotan aritu ziren Maialen Lujanbio eta Julio Soto. Korrikako bi peto eta bi gazta zozketatu zituzten eta Peio Dorai, Juanjo Zubieta eta Iñigo Navarro izan ziren irabazleak.

Hilabete honetan, beste bi ekitaldi aurreikusten dira lasterketaren aurretik. Apirilaren 5ean, Korrika aurkezpena eta "Txillardegiren Klika" dokumentalaren proiektzioa eskainiko dute Arribeko Satorzulo lokalean. Eta apirilaren 7an, goizeko 11:45ean hasita Korrika Kantu-poteoa egingen da Lekunberriin.

Apirilaren 8an, lasterketaren egunean, goizeko 12:00etan Korrika txikia egingen dute Araxes Ikastetxe-ko ikasleek. Eta iluntzean denok Korrikara!!!

Informazio gehiago [www.korrika.eus](http://www.korrika.eus) atarian.



# R.I.P.

Requiescat in pace edo "hartu atsedean bakean". Heriotza, zein hitz hotza eta tristeza ezta? Bada, gaurkoan, hemen nago argi eta garbi esateko, hil egingo zara, zu, ezagutzen ez duzun Txinako neskatila eta horrenbeste maite dituzunak, denak hilko gara eta justua da. Horrela bat-batean esanda krudela da, badakit. Bai, denok merezi dugu hiltzea, bizitzaren azken etapa hau guztiz naturala da eta honek egiten gaitu benetan gizaki, denok merezi dugu errespetu eta duintasun osoz bizitzea, baina baita hiltzea ere, heriotza gertu daukagula sentitzea eta onartzea, beldurra galtzea. Mingarria da oso, galduak eta oso ahulak sentitzen gara, gizaki soilak besterik ez garelako konturatzen garelako. Baina, zer zentzu izango luke bizitzak amaierarik gabe? Esan al dezakegu bizi garelako ez bagara hiltzen?

Egia da heriotza oso bortitza izan daitekeela zenbait kasutan, tamalez kasu gehiegitan galtzen du justiziak zentzua. Hildakoa umetxo bat bada edo hiltzaile bat bada errudun edo bat-bateko istripua... Normala da guztiz sentimendu nahasiak izatea, triste egotea eta amorrua, batez ere amorrua. Baina honek ez du justifikatzen heriotzaren inguruan daukagun jarrera. Bortitza da bai, mingarria.. amaiera delako.

Beldurra ematen digu hiltzeak. Beldurgarria delako hiltzea. Baina beldur gehiago ematen digu beldur hori onartzeak. Ez dugu gaia inondik inora atera nahi, ez dakigu nola jokatu norbaiti senitartekoa hil zaionean. Umeei ez diegu azaltzen zer den hil-

tzea, mina eta tristura geureganatzen ditugu heriotza bizi izan dugunean... Hiltzeko arriskua dagoenean edo hildakoak egon direnean egiten ditugu legeak edo hartzen ditugu neurriak, orduan ateratzen gara kalera bakea eskatzera... batez ere, hiltzeko arrisku hori herrialde garatuenetara iristen denean.. bitartean ez delako arazoa, behintzat ez gurea. Bizitza duina eskatzen dugu, baina heriotza duina nahi duenak beldurra ematen digu.

Hiltzea bezalako ekintza naturala iri muzin egiten diogu, ez dugu onartu nahi eta urruntzen saiatzen gara, baina ezin duzu ihes egin. Hil egingo zara eta hil egingo dira. Hain naturala den ekintza guztiz monotonizatu



dugu, automatik bezala. Eta okerrago oraindik, negozioa egiten dugu heriotzarekin.

Hildakoari eta familiari errespetua zor diegulako? Benetan?

-Kutxa erosoena izango duzu eta lorerik politenak eta lasaitasunik atsegina... ahaztu baino lehenago, gure kontu korrontea hor behean daukazu, transferentziak onartzen dira...

Jaiotzean diru-laguntza jasotzen duzu, dena da zoriona, ongi etorria, eta eroso eta polita dirudi.. baina lapikoko igela bezala gara... jaiourretik esango baligute jaiotzen zaren une beretik hiltzen zaren arte, errespetu urriko eta askotan gabeko munduan biziko zarela, agian salto egingo luke baten batek lapikotik. Baina jaiotzean ongi etorria egiten dizute eta dena da atsegina, gero pixkanaka tapa jartzen dizute eta errespetua pixkanaka galtzen da. Konturatzen zarenerako hil egingo zara, baina dagoeneko ezin duzu ihes egin eta inork ez dizu inongo esplikaziorik eman hori onartzeko. Hil egin zara. Orduan berriro da errespetua... ondorengo igela ez dadin beldurtu.

Nik ez dut errespeturik nahi hiltzen naizenean, nik orain nahi dut errespetua, bizirik nagoela, pertsona naizelako, nire ekintza eta erabaki guztietan, orain hazi egin nahi dut, bizi eta heriotza onartzen ikasi, eta duintasuna inoiz ez galdu, zapaldua inoiz ez izan. Hiltzen naizenean, orduan zapaldu nazatela, ohore bat izango da izandakoekin batera azarna eta ondorengoentzat pauso izatea.



luze

Leire Aranburu



# Ni neu naiz, bikote harremanetan ere

Umeak, jaio berritan, ez dauka ideia-rik nor den. Poliki-poliki ikasiko du izen bati erantzuten eta izen hori berea dela jakingo du laster. Umetan ikasten dugun lehenengotakoa geuri eman diguten izena da. Baina izena eta izana ez dira gauza bera. Hazten garen neurrian, harremanak nola izan beste pertsonekin, anai-arreba eta gurasoekin, esaterako, ikasten dugu eta izaera garatzen dugu. Jakina, geure bizitzaren etapa honetan ezin ditugu geure beharrak bete guk geuk eta, ondorioz, gurasoak edo gutaz arduratzen direnak behar ditugu horretarako. Hortaz, menpekotasun harremanen bidez egiten dugu aurrera, oso ezinduak jaiotzen baikara. Bizitzan aurrera goazen neurrian, gero eta autonomoagoak bihurtzen gara eta bagoaz menpekotasun batzuk alde batera uzten. Gauzak horrela, pertsona heldu bat, erabat autonomoa da psikologikoki ongi garatu bada. Zoritxarrez, ume garaiko joera eta gabezi asko eramaten ditugu geure barruan eta adinez nagusiak bagara ere, menpekotasun emozionalak eta beste eratakoak ere, erakuts ditzakegu helduok, oraindik neurri batean umeak bagina bezala.

Jarrera hauek oso argi azaltzen dira bikotean jartzen garenean eta maiz bihurtzen dute bikote harremana kalbario latza. Maitemintzean dena polita da, itsu-itsu zoriontsu izan gaitzke hasieran bestearen ondoan, baina poliki-poliki geure gustukoak ez diren gauzak hasten gara ikusten edo baita nozitzen ere. Askok eta askok, hasieran espero



dugu bikote harremana zoriontasun iturria izatea eta horrela gertatzen ez denean, zoriontasun ezaren iturri bezala ikusten dugu geure harremana edo geure bikotekidea. Baina nire bikotekidea ez da nire ama edo nire aita eta ni ez naiz ume bat. Nire bikotekidea ez dago mundu honetan nire beharrak asetzeko, inolaz ere ez. Bi pertsona diferente gara, bi heldu, bi historia pertsonal eta elkartu egin gara bion artean geure bizitzaren parte bat batera egiteko. Nik bestea maite badut, libre izatea nahi dut, bera den bezala izatea, bere osotasunean, bere izenetik haratago. Fritz Perls, Gestalt terapiaren aitak, ondokoa idatzi zuen:

“Ni, neu naiz eta zu, zeu zara.

Ni ez nago mundu honetan zeure itxaropenak betetzeko eta zu ez zaude hemen neureak betetzeko.

Ni mundura etorri naiz neu izatera eta neure bizitza bizitzera, eta zeu etorri zara zeu izatera eta zeure bizitza bizitzera.

Elkar topatzen badugu, ede-

rra izango da, baina ez bada horrela, ez zuen izan behar.”

Perls psikoterapeutaren adierazpen hauek, harreman osasuntsuetarako bidea erakusten digute, ederki biltzen baitute nola eraman aurrera bikote harremana helduen artean. Besteak nire beharrak asetzeari espero edo exijitzen dudanean neurrian, ume baten jarrera ari naiz izaten. Sarritan bikote barruan gertatzen den bortizkeriaren sustraia sinestean oinarritzen da. Baina inor ez da inor baino gehiago. Desberdinak gara, besterik ez. Biok eskubide eta betebeharrak berberak. Inor ez da etorri mundu honetara beste norbaiten exijentziak betetzera, are gutxiago maite omen naudenarenak. Inor ez da etorri mundu honetara, ondokoa zerbitzatzen. Etorri gara gu geu izatera, libre eta arduratsuak. Geure zoriontasuna eta geure beharrak asetzeko iturriak geure baitan daude. Hortxe begiratuko dut, hortxe bilatu. Neure bikote harremana mina eta beldurrak bizitzera bultzatzen banau, akabo. Baina neure esku dago hau bukatzea. Kanpoan laguntza eskatu behar badut, eskatuko dut eta ez naiz ezer egin gabe geratuko. Bikote harremana ezin da kartzela izan, kontrakoa baizik. Bikote harremana neure burua hobeto ezagutzeko eta maitatzeko lekua behar du izan. Biok horrela bizi badugu, elkarri lagunduko diogu geure garapenean. Horrela, beste baten ondoan gu geu izan gaitzke eta bizi ditzakegu geure bizitzak.



# Zer ari zaio pasatzen ezpelari?

*Ezpela edo espainolez boj izenez ezaguna den zuhaixka gaur egun inguruko edozein lorategitan aurki dezakegu. Baliteke zuk zeuk ere zeurean izatea. Baina azken urteotan ihartzen hasiak dira batzuk. Eta ez, oraingoan behintzat ziurrenik ez da zure zainketa faltagatik izan. Intsektu inbaditzaile baten erasoak izan da arrazoia. Itziar Gastesi lekunberriarra Fraiso-ro Nekazaritza Eskolako irakaslea da eta berari esker, geroz eta gehiago ugaltzen ari den espezie honen berri izanen dugu.*



*Cydalima perspectalis*, espezie exotiko eta inbaditzailea da. Asian du bere jatorria eta Europan, lehen aldiz Alemanian topatu zuten 2006 urtean. Gurera beranduago etorri zen, Galizian 2014 urtean antzeman zuten.

2018ko urtean, hedakuntza nabarmena izan da, Lekunberri inguruan ere iazko udaberri-uda partean zabaltzen hasi zen.

Cydalimaren ziklo biologikoa apirila eta iraila artean garatzen da. Negua lozorroan igaro ondoren eguraldi onarekin esnatu egiten da eta goseti, hostoez elikatzen hasten da. Hostoak zeta-kapulu moduko bat sortzeko ere erabiltzen du, bertan beldarra tximeletan eraldatzen da. Tximeletak ugaltu egiten dira eta arrautzak hostoetan jartzen dituzte.

Ugalketa oso azkar gertatzen da eta udaberri eta udazkena artean 3 edo 4 aldiz errepikatu daiteke prozesua, beraz izurritea oso azkar garatzen da eta ezpelak denbora gutxian suntsituak geratzen dira.

Asian, Cydalimak harrapakari naturalak dituen bezala, hemen oraindik ez ditu. Ematen duenez, liztor



## ZIKLO BIOLOGIKOA

45-50 Egun behar ditu 4 faseak garatzeko

1. Helduek arraultzak jartzen dituzte ezpelaren hostoetan

2. Handik 5 egunetara beldar gazteak jaiotzen dira

Beldarrak ezpelaren bi hostoen artean pasatzen du negua, zeta-kapulu moduko batean



3. 29-33 egun ondoren krisalida sortzen da.

4. 10 Egunetara krisalidatik tximeleta helduta jaioko da

asiarrak erasotzen ohi ditu, baina ez dugu ahaztu behar hau ere inbaditzailea dela eta momentu honetan bere aurka borrokatzen ari direla.

Cydalimaren erasoaren ondorioz, ezpelak historik gabe gera daitezke, eta landareak fotosintesia ezin duenez egin, landarea ahuldu eta hil daiteke.

Beraz, erasoaren lehen aztarnak ikusi orduko neurriak hartzea gomendatzen da. Honetarako tratamendua bi faseetan egitea gomendatzen da.

1. Beldar helduak intsektizida espezifikoko batez suntsitu, tratamendu hau 4 egunetara errepikatu. Oroitu, tratamendua egiteko garaian, arratsean egitea komeni da, eguneko ordu beroenetan beldarrak babesean izaten baitira.

2. Ondoren, 5 egun igaro ondoren, arrautzak eta beldar gazteak suntsitzeko, tratamendu biologiko bat egitea oso eraginkorra da, hau bakterio bat da, *Bacillus thuringiensis* (beldar gazteen digestio-aparatua paralizatzen du eta ezin dutenez jan, hil egiten dira). *Bacillus thuringiensis* tratamendua 10-15 egunetik behin errepikatzea komeni da, eta beti arratsean eta ateri dagoenean.

Feromona tranpak ere oso eraginkorrak izan daitezke. Hauetan arrak erakartzen dituen feromonak ezartzen dira eta atrapatuak geratzen dira, eta honen ondorioz ezin dira ugaltu.

Beraz, zure lorategian ezpela bazu, bi aukera dituzu: bata, lehenbailehen kendu infekzio-foku bat izan ez dadin eta bi, tratamenduarekin hasi, lehen aztarnak ikusi orduko.

**Asian dagoeneko harrapakari naturalak dituztela aipatzen duzu... Horiek naturalki sortu dira espezieari aurre egiteko edo propio jarritakoak dira? Hemen etorkizunarekin baliteke naturalki sortzea?**

Asiako harrapakaria naturala da. Hau gertatzea oso ohikoa da, izurrite askok dituzte predatzaile naturalak. Eta kanpoko izurrite bat sortzen denean, denak bezala bere denbora behar du. Natura dena orekatzen saiatzen da, eta egunen batean, harrapakari bat sortuko zaiola uste dute adituek, baina ezin jakin hau noiz gertatu daitekeen. Kontrol biologikora dedikatzen diren enpresak ikerketa asko egiten dituzte, eta agian ariko dira honen inguruan ikertzen, oraindik ez da ezer entzun ordea.

**Nola antzeman daiteke garaiz? Hostoetan zulotxoak ikusiz edo zeintzuk dira seinale argienak?**

Egia esan gune batetik hasten da heskaia kaltetzen. Hasiera batean ihartzen ari dela ematen du, eta heskai guztian barna zabaltzen da sintoma hau. Gero, gertutik begiratuta, hostoekin egindako habitxoak antzematen dira eta beldarrak erraz ikusten dira. Baina azken finean de-

foliatzailea da beldarra, eta hostoak osorik jaten dituzte.

**Ezpelari bakarrik egiten diote eraso?**

Oraingoz ematen du ezpelari bakarrik eragiten diotela, bai. Adituek diotenez, ezpelarekiko espezifikoa da, baina *viburnum* espeziea ere kaltetuta gerta daiteke.

**Aipatzen dituzun bi tratamenduak non aurki ditzakegu? Edozein saltokitan?**

Tratamenduak berriz, edozein denda espezifikotan aurki ditzakegu, hau da garden edo loreak saltzen dituzten salmenta tokietan.



# “Pozik nago, erakutsi nahi nituen gauza asko erakusteko modua izan dudalako”

*Aurtengoan ere Julio Soto izan da Nafarroako Bertso-lari Txapelketako txapel-duna. Bosgarren txapela du dagoeneko gorritiarrak. Orain bi urte bezala, Eneko Lazkozekin aritu zen finalean, buruz buru. Aurtengo finalak badirudi gazitik baino gozotik gehiago izan duela.*

## **Aurtengo txapelketaren zein balorazio egiten duzu, Julio?**

Finalera arte egia esan nahiko zaila egin zait txapelketa. Konfiantza gutxiarekin eta oraindik kokatu gabe harrapatu ninduen txapelketak. Eta gero, final-aurrekoan, sentsazio oso onak nituen arren, bi poto egin nituen.

## **Xabier Terrerosek irabazi zuen Etxarri-Aranazko final-aurrekoa...**

Bai. Bai bi poto egin nituen eta hori puntuazioan zigortu egiten da. Baina orokorrean oso ongi sentitu nintzen, jakin arren finalean gehixeago egin beharko nuela. Eta finala oso zentratu eta aldarte onean bizitu nuen. Oso bakean nengoen nire buruarekin. Garbi neukan, gutxi gorabehera, zer eta nola kantatu nahiko nukeen eta finalaren egunean, horretarako aukera ere izan nuela uste dut. Oso lasai bizitu nuen finala, asko disfrutatu nuen bertsoak sortzen eta nahiko gustura bukatu nuen.

## **Orain bi urte egin genizun elkarriketan zenion, oraindik Albertoren ezbeharrak oso presente ze-nuela eta hurrengo txapelketan (2019koari erreferentzia eginez) libreago aritzea gustatuko litzai-zukeela. Orain bi urteko finala bai-no gozagoa izan da?**

Bai. Nafarroako azken bi txapelketak eta finalak, Albertoren heriotzari oso loturik egon dira. Bata orduantxe gertatu zelako eta hurrengo oraindik ere berria zelako eta dolua itxi gabe neukalako. Gero, Euskal Herriko Txapelketa etorri zen eta etxeko arazo horri dagokionez, libre kantatu nuen, baina ez nuen gustura bukatu. Egia da, duela bi urteko txapelketatik hona, nik nire barrenean askoz ere argitasun handiago ikusten dudala, askoz ere poz handiago eta hori ere bertsoetan ikusten da. Argi neukan, txapelketa honek jada beste argita-

*“Final honek, orain dela bi urteko finalak baino askoz ere asebetego utzi nau”*

sun batekin harrapatzen ninduela eta argitasun hori bertsoetan ere islatu nahi nuela. Eta ezin da jakin zein kolorekin bukatuko den final bat, baina pozik nago erakutsi nahi nituen gauza asko erakusteko modua izan dudalako.

## **Bosgarren txapela da jada. Bosgarrena izateagatik badu aurrekoek ez zuten zerbait?**

Ez. Txapela baino txapelketa guztiak dira bereziak, txapelarekin bukatu edo ez (gainera, normalean, txapelik gabe bukatzen duzu), baina denek uzten dizute zer edo zer berezia. Txapel bakoitza bizitzako garai batekin lotzen dut, nire ezaugarri batzuekin, inguruan gertatzen denarekin eta finalean gertatu izan diren gauza batzuekin. Pentsa azkeneko bi finalek zein esanahi duten... Egia da, final honek, orain dela bi urteko finalak baino askoz ere asebetego utzi nauela bertsoari dagokionez.

## **Aurtengoan, Joxema Leitzak jantzi zizun txapela. Zein da Joxema Leitzak zuretzat?**

Ni bertsoetan hasi nintzenetik, Joxema hori egon da. Niretzako Nafarroako bertsoagintza Joxema zen. Tartean zeuden Estitxu Arozena, Manuel Arozena, Bittor Elizagoien eta beste asko, baina Joxema beti hori zegoen pertsona bat da. Eta niri, asko lagundu didan pertsona. Nire lehendabiziko Euskal Herriko Eskolarteko finalera, Mungia, Joxemak eraman ninduen, Xaltoko finalera ere berarekin joan nintzen... Eta saio askotara kantatze- ra joateko animatzen ninduen. Niri asko lagundu dit, beste askori bezala. Eta kolektiboarentzako egin duen la-

nagatik nahiz pertsonalki, bertsolari gazte nintzenetik lagundu zidanagatik, Joxemak txapela jartzea oso berezia izan da. Eta baita oholtzan egin zitzaion omenaldia, berak bota zuen bertsoa... Niri txapela jartzeak baino gehiago hunkitu ninduen elkarri eman genion besarkada hark. Beti da berezia txapela jartzeko momentu hori, baina oraingoan, pertsonalki ere asko konpartitzen nuen txapela jarri didan pertsona horrekin. Alde horretatik borobila atera zen finala!

**Aurten poztekoa izan da bi bertsolari gazteagoak ere finalean ikustea... Larraunen asko ez badira ere, baditugu bertsolaritzan hasiak direnak. Ilarregi anaiak hor ikustea positiboa da atzean datozenentzako...**

Bai. Bertsogintzan, edozein esparrutan bezala, erreferenteak behar dira, bai helduak eta baita gazteak ere. Azken urte hauetan atzetik heldu ziren, baina, oraindik salto bat falta zitzaieela ematen zuen. Eta aurten Xabat eta Joanesek salto izugarri bat eman dute. Baina finalean sartu ez diren beste bertsolari batzuk ere salto kualitatibo bat eman dutela uste dut. Oso pozgarria da erreferente gazteak azaltzen direla ikustea, Nafarroako Bertsogintzak, nolabait bere geroa ziurtatuagoa duelako orain.

Eta guretzako ere mesedegarria da. Azken batean, atzetik hain indartsu heldu direnean, zure buruari ez diozulako lasaitzen uzten. Horregatik, oso pozgarria izan da denontzat Xabat eta Joanesen agerpena eta baita finalera sartu ez diren



horiena ere. Anaia hauek leitzarrak izanik oso gertukoak ditut. Gainera, Joanes iaz, gurekin ibili zen Lekunberriko Bertso Eskolan eta aurten ere saioen bat egin du gurekin. Horregatik, nolabait etxeokoa sentitzen ditut.

*“Joxemak txapela jartzea oso berezia izan da”*

**Lekunberri elkartzen jarraitzen duzue, beraz...**

Bai. Xabier Terreros, Eneko Lazkoz, Aitor Irastortza, Joana Ziganda, Saioa Alkiza, Oskar Estanga, Joanes Ilarregi (tarteka) eta ni neu biltzen gara



astean behin Lekunberrin. Horri eusten diogu eta egia esan, izugarritzko fruituak ematen ari den talde bat dela uste dut. Beti aipatzen dudan moduan, Arkaitz Goikoetxearekin zorte handia daukagu. Nik pertsonalki, aurtengo finalean garbi neuzkan gauza asko Arkaitzi zor dizkiot, berak ematen dizkidalako behar ditudan pistak. Zorte handia daukagu bera taldean izatea.

### **Oraindik zer sumatzen duzu faltan Nafarroako Bertsolari Txapelketetan?**

Nafarroan, lortzeko bidean goazen arren, orokorrean oraindik ere salto kualitatibo bat ematea falta zaigula uste dut. Aurtengo finala, zortzikote bezala, azken urte hauetako finalik osoena izan dela iruditu zait, sentsazio hori izan nuen hasieratik bukaerara arte. Bakoitzak bere hanka-sartzeak egin zituen, noski, baina denok guretik asko eman genuela uste dut.

### **Geroz eta maila handiagoa dago?**

Bai. Aurten bi aurpegi berri izan ditugu finalean eta zein mailarekin gainera! Salto kualitatibo bat falta zen eta ematen hasi da. Hala ere,


oraindik beste koska bat falta zaigu denoi. Baina bide horri eutsi behar diogu, ez delako nahiko hiru, bost edo sei bertsolarik bertsotan oso ongi egitea. Baina hasi gara salto hori ematen eta finalera sartu ez diren gazte horiek ere uste dut asko lagunduko dutela. Eta aurpegi berriak ere azalduko dira. Bestalde, oso nabarmena da ere, emakume bertsolari gehiagoren presentzia falta dela. Emakumezkoetan salto kualitatiboaz gain kuantitatiboa ere falta zaigu. Finaleko atetan gelditu dira, adibidez Saioa Alkiza eta Alazne Untsalo, baina orokorrean, kopuru aldetik eta maila aldetik ere gabezia bat badago. Baina Lekunberriko Gazteen Bertso Eskolan adibidez, 14 eta 15 urteko zor-tzi gazte aritzen dira eta horietatik 7 neskak dira. Eta beste eskualdeetako bertso eskoletan ere zenbat neska dauden ikusita baikorrak izan beharko genuke. Plazara ateratzeko gelditzen zaigun salto hori ere etorriko da pixkanaka. Orokorrean, esparru askotan, genero berdintasunaren alde lan handia egiten ari da gizartean eta nahiko baikorra naiz etorkizunarekin, atzetik oso bertsolari onak heldu direlako eta bide zuzenean goazela iruditzen zaidalako.



Xanti Saigos



Apilkazioa doakoa da, baina kanten artean iragar-  
kiak entzutera behartzen gaitu. Iragaririk ez entzu-  
teko eta sakeleko telefonoetatik mugak kentzeko,  
"premium" delako kontu bat izan behar da eta ho-  
rrek hilean 10 euroko kuota bat ordaintzea eskatzen  
du. Sei pertsonarentzako kontu familiarra egiteko  
Aplikazioa Windows, Mac, Linux, iOS eta Android  
sistema eragileentzat eskuragarri dago baita web  
orrialdearen bidez ere.



Spotify musika eta podcast  
entzuteko aplikazio bat da. Ber-  
dina egiten duten aplikazio ugari  
dagoen arren (YouTube Music,  
Apple Music...), hau zabalduena  
dela esan dezakegu. Bertan gure  
playlistak (abesti zerrendak) sortu  
Orain gainera, podcast entzuteko  
aukera gehitu dute.



SPOTIFY



digitaleko  
smartphone  
bidali ikusi  
artekatu  
app  
download

## LEKUNBERRI

Haur eta helduen abesbatzetako abeslariekin  
sortutako ikuskizuna

“Esentzia” izeneko ikuskizuna eskaini zuen joan den hilean Aralar Musika Eskolak Lekunberriko kiroldegian. Zortzi eta hogeitau bitarteko 110 ikaslek parte hartu zuten. Abesbatza txikiko eta Gazteen abesbatzako kideak dira denak. Gainera, Lekunberri eta Larraungo helduen Kantuz Abesbatzak ere parte hartu zuen. 400 ikusle inguru joan ziren. Ikuskizunak Mitxausenea Kultur Etxearen laguntza ekonomikoa izan zuen eta kategoriako emanaldia izan zen, gure eskualdeak bereizgarri dituen ezaugarriak protagonista bihurtuz.



## IHAUTERIAK

Aldatz eta Gaintzakoeekin  
agurtu ditugu aurtengoak

Martxoan ospatu zituzten herriko inauteriak Aldatzen eta Gaintzan. Aldatzen Matixa elkartearen otordu eta otorduen artean ospatu zituzten baina herrian barna urteroko kalejira ere egin zuten eta Martitxonea Sagar-dotegira egin ohi duten zitan ere ez zuten huts egin. Gaintzakoeak izan dira aurten ere azkenak. Goizeko puska-biltzarekin hasi zuten eguna eta iluntzera arte etxetik ibili ondoren Sonbelu elkartearen antolatutako herri-afarian elkartu ziren denak. Ondoren parranda goizaldera arte luzatu zen elkarrekin ukiulan.

## ALDATZ



## GAINTZA







## Galarza eta Saralegi izan dira Neguko Pilota Txapelketako gazteen mailako txapeldunak

Larraungo Pilota Elkartek antolatutako Neguko Txapelketako finalak jokatu ziren joan den martxoaren 15ean Lekunberriko pilotalekuan. Kadeteen maila, Aimar Goldarzenak eta Hodei Ijurkok Aldabide taldeko Goikoetxea eta Lizarragaren aurka jokatu zuten eta azkenean larraundarrek irabazi zieten, 22 eta 21. Gazteen Mailan berriz, Iñaki Galarza eta Aimar Salaregi izan ziren txapeldun, Oinatz Iriarte eta Eñaut Zubiriri 22 eta 18 irabazi eta gero. Zorionak denoi!

## Ekainaren 9an izanen da Aralarko Ibilaldia

XVI. Aralarko Ibilaldia ekainaren 9an izanen da eta orain dela bi urteko ibilbide berdina mantenduko dute antolatzaileek. 33,4 kilometroko mendi martxa izanen da. Lekunberritik irten, handik Albiasu aldera, eta Baraibarko antena ingurutik barna Errazkingo bordetara iritsi eta gero, Ttutturera igo eta Beloki, Albi, Artxueta, eta Burnigurutzetik barna Iribasera. Ohitura onei jarraituz, ibilaldiaren amaieran paella eta kamisetak banatuko dira parte-hartzaileen artean.

## Gorostietatik Belatera

46 lagun elkartu ziren Ttuttore Kirol Elkartek antolatutako azken mendi-irteeran. Gorostietako gainetik, Belaterainoko tartea egin zuten. Eloko mendi-lepoa zeharkatu eta Putzuetako tontorrera igo ondoren, Belateko gaineraino iritsi ziren. Apirilaren 28an izanen dute hurrengo ataraldia. Belate eta Urkiaga arteko etapa egingen dute. Eta nahi izanez gero, aurreko egunean, Irurtzungo Iratxo Elkartek antolatutako Hiru Baselizen Ibilaldian ere parte hartzeko aukera izanen da. Animatu eta parte hartu!

**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitarkeoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte  
ARBEONDO HARATEGIA  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

**aitz berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com



## 57 korrikalarik parte hartu dute 31. Lekunberriko Legoako proba nagusian

Inoiz ezagutu den Legoarik beroena izan zen joan den hilaren 23an Lekunberri egindakoa. Proba nagusian 53 lasterkaririk lortu zuten helmugaratzea. Gizonezkoetan Eneko Garin izan zen azkarrena (00:19:30) eta alde txikiarekin sailkatu ziren Mikel Beunza (00:19:48) eta Raul Gomez (00:20:11).

Emakumezkoetan berriz, Lourdez Colomo zizurkildarrak lortu zuen lehen postua (00:24:11) eta bere atzetik iritsi ziren, Ane Martin (00:24:25) eta Olatz Gonzalez (00:26:19). Ane Martin, 13 urteko tolosarra 3.000 kilometrotako lasterketetan aritzera ohituta dago eta lau kilometroko lasterketa herrikoa egiteko asmoarekin atera zen irteeratik, baina Malloetan ez zen buelta eman behar zuela ohartu eta azkenean sei kilometroko lasterketa egin zuen eta bigarren gelditu gainera. Eskualdeko sailkapenari dagokionez, emakumezkoetan, Olatz Glaria izan zen parte-hartzaile bakarra. Eta gizonezkoetan berriz, Xabier Satrustegi, Ander Arraztio eta Angel Ayestaran sailkatu ziren hurrenez hurren.



**Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean**  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

**Industrialdea, 11**  
**31870 Lekunberri - Nafarroa**  
**Tel.- 948507319 Fax.- 948604792**  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)

**ESKUALDEKO KORRIKALARIEN SAILKAPENA**

Izen-abizena	Herria	Denbora
Xabier Satrustegi	(Betelu)	00:20:59
Ander Arraztio	(Betelu)	00:23:12
Angel Ayestaran	(Lekunberri)	00:23:49
Imanol Jaka	(Etxarri)	00:24:22
Martin Askarai	Gaintza)	00:24:57
Olatz Gonzalez	(Lekunberri)	00:26:19
Aitor Zabaleta	(Lekunberri)	00:26:38
Unai Ijurko	(Uitzi)	00:26:43
Asier Eleta	(Lekunberri)	00:26:48
Ibai Aldaregia	(Lekunberri)	00:27:57
Sergio Rodriguez	(Lekunberri)	00:28:14
Jon Ander Etxarri	(Baraibar)	00:29:06
Iñaki Albeniz	(Lekunberri)	00:29:17
Aitor Zubillaga	(Lekunberri)	00:29:18
Mikel Ijurko	(Uitzi)	00:29:18

**HAUR LASTERKETETAKO SAILKAPENAK**

<b>Aurre-benjaminak (neskak)</b>	<b>Kimuak (neskak)</b>
1. Ane Albeniz	1. Oihane Galbarra
2. Ane Zabaleta	2. Lierni Guelbenzu
3. Maddi Zubillaga	
<b>Aurre-benjaminak (mutilak)</b>	<b>Kimuak (mutilak)</b>
1. Unai Ijurko	1. Arkaitz Zabaleta
2. Andoni Arretxea	2. Garai Viana
3. Xabier Goldarazena	3. Ibai Ijurko
<b>Benjaminak (neskak)</b>	<b>Infantilak (neskak)</b>
1. Uxue Zabaleta	1. Ilargi Etxarri
2. Irati Munárriz	2. Yissely Álvarez
	3. Alaitz Azpirotz
<b>Benjaminak (mutilak)</b>	<b>Infantilak (mutilak)</b>
1. Aitor Balda	1. Beñat Fernández
2. Imanol Sotil	2. Sahatsa Vázquez
3. Oian Ijurko	3. Ioar Merino



**M. Angeles Urrizalki**

**iragarkiak, berriak, eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala**

**948513056  
699179437**

**Atabal**  
akindogia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etxez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE**  
harategia

**BERTAKO HARAGIA**

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak. Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.

Antigua Kalea N°7  
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

# “2020an arazitarraren eta beteluarren erdiek konpostatzea da helburua”

**Araxes Garaiko Mankomunitateak Araitzen eta Betelun konposta egiteko kanpainari ekin dio. Izan ere, Europatik ezarritako legearen arabera, 2027rako, bilketa selektiboaren %65 lortzea da helburua. Pauso honekin arazitarrak eta beteluarrek organikoa behar bezala kudeatzen hasiko dira eta horretarako Joseba Sanchez Mankomunitateko teknikari berriaren laguntza izanen dute.**

## Herriz herri aurkezpenak egiten hasi zarete dagoeneko...

**Joseba:** Bai, iazko batzarrean plan estrategiko bat onartu zen eta besteak beste hiru urteren buruan materia organiko guztia bertan kudeatzearen erronka adostu zen. Eta horretarako, konpostagailuen siste-

maren alde egin zen, bereziki etxez etxeko konpostagailuen bitartez.

## Araitzen eta Betelun orain arte ez zegoen konpostagailurik etxe bakar baten ere?

**Joseba:** Oso gutxi. 2010ean gutxi batzuk banatutakoak baino ez. Ora-

in dagoeneko aurkezpenak egin ditugu herriz herri, urte honetan herritarrek jarri beharko dituzten konpostagailuen berri emateko. Eta ondoren, etxez etxe joango gara, konpostagailuak eskaintzen eta erabilerari buruzko informazioa ematen. Gure helburua da, aurten gutxienez biztanleriaren erdiak konpostatzea. Horretarako etxe guztiak bisitatuko ditugu.

## Konpostagailua baino ez dute behar horretarako...

**Joseba:** Hori da! Konpostagailua doakoa da. Eta oraingoz borondatezkoa bada ere, helburu batzuk bete behar ditugu. Nafarroako Gobernua lege bat onartu du eta bete egin beharko dugu. Eta ez badugu betetzen epe motzera halabeharrez ezarri beharko da.

## Konposta egitea prozesu erraza da...

**Joseba:** Bai. Janari hondar guztiak



 **ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldiro  
eskaintza bereziak

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**  
 696 658 288  
LEKUNBERRI

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15  
948 60 47 24**

**TAXI  
SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza

**IORTIA** EL INCA ESTETIKO HORTZ BILKETA  
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591  
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69  
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

eta organikoa den guztia konpostagailura bota eta hor orbelarekin edo material lehorrarekin nahastu baino ez da egin behar. Urte erdian edo denbora gutxiagoan jada konposta lortzen da eta gero ongarri hori loriekin edo baratzean erabili daiteke.

#### **Ez duzue auzo konpostagailurik jartzeko asmorik?**

**Joseba:** Kontuan hartuta ibar honetako biztanleria gehiengoa bizitza bakarreko etxeetan bizi dela, lehenik konpostagailu individualak jarriko ditugu. Eta bigarren fasean, kasu oso partikularrengatik etxeko konpostagailua jartzea ezinezkoa dutenezko eta sortzaile handientzako (zaharren egoitza, ikastetxea, ostatuak etab.) auzo konpostagailuak jarriko dira. Baina auzo konpostagailuak, printzipioz Bete-lun eta Arriben eta Atallun bakarrik jartzea aurreikusten da.

#### **Eta pisuetan bizi diren horientzako?**

**Joseba:** Euren iritzia kontuan hartuko dugu eta ondoren erabakiko da. Baina ziurrenik auzo konpostajea

eginen dute. Zenbait lekutan Udalaren lurretan jarri izan dira horientzako konpostagailu individualak. Kasu horretan aukera ezberdinak aztertu beharko dira.

#### **Zer moduzko harrera izaten arida?**

**Joseba:** Ona. Orain arte egindako batzarretan jendea oso alde agertu da. Gainera, zenbait herritan badira aspalditik konposta egiten duten bizilagunak ere, baratzea dutelako, abereak dituztelako edo dena delakoagatik hondakin organikoa kudeatzen dute etxean. Baina gutxiengoa dira eta lana izanen dugu, gainerako etxebizitzetan ohitura berriak ezartzen. Baina herritarrek jakin dezatela gainean egonen garela, laguntzeko prest. Konpostagailuak banatzerakoan beharrezko informazio guztia emanen zaiela, baina gerora edozein zalantza edo arazo sortzen bazaie ez direla bakarrik egonen eta Araxes Garaiko Mankomunitatera deitu (948 513 087) baino ez dutela egin beharko eta berehala joanen garela.

*“Herritarrek jakin dezatela, laguntzeko prest egonen garela”*

**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:  
948513026  
618557889

**AMAIRU BAR**

ETXKO PIZZAK,  
KOPA, BERGIZAK

948504352

LAGUNDU MAILU  
LAGUN

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?  
mailope@labrit.net

**LARRAUN** GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ  
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

**Gruas y Talleres LARRAUN S.L.**

Lekunberriko industriagunea,  
21. nabea  
31870 Lekunberri  
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefonoa: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
gtlarraun@gmail.com



**AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA:**

**MEKANIZATUA:**

Jasotako proposamena onartzerakoan, TELEFONOZ ZEIN INTERNET BIDEZ, euskaraz egin nahi duzula esan, eta aurrerantzean ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkizu.

- Hitzordua hartzerakoan, adieraz ezazu Ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula.
- Ogasunarekin aurrez aurreko harremanak, nahiz telefono edo Internet bidezkoak euskaraz izan ditzakezu, horrela eskatzen baduzu.
- Ogasunak sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu.

- Errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara aukeratu
- Aholkularitzaren bat aukeratzen baduzu, espresuki adierazi beharko duzu aitortpena euskaraz egin nahi duzula.
- Beste modu batean egiten baduzu (finantza erakunde batean, adibidez), euskaraz egiteko eska dezakezu.

**INTERNET BIDEZKOA:**

- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA (OHZ) Impuesto sobre bienes inmuebles (IBI)
- PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA (PZEZ) Impuesto sobre la renta de las personas físicas (IRPF)
- SORTZAPEN devengo

ZERGADUN contribuyente  
ZERGALDI periodo impositivo

hiztegitxoa

ATXIKIPEN retención  
BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA (BEZ) Impuesto sobre el valor añadido (IVA)  
EKARPEN aportación  
ETEKIN GARBI rendimiento neto  
ETEKIN GORDIN rendimiento bruto  
ETEKIN OSO rendimiento íntegro  
GASTU KENKARIDUN gasto deducible  
HOBARI bonificación  
IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA (IFZ) número de identificación fiscal (NIF)  
IRABAZPIDEZKO ERREGIMEN EKONOMIKOIA régimen económico de gananciales  
JARDUERA EKONOMIKOAREN GAINEKO ZERGA (JEZ) impuesto sobre actividades económicas (IAE)

KAPITAL HIGIEZIN capital inmobiliario  
KAPITAL HIGIKOR capital mobiliario  
KENKARI deducción  
LANBIDEARTEKO GUTKIENEO SOLDATA salario mínimo interprofesional  
MAILEGU préstamo  
OGASUNA Hacienda  
OINARRI EZARGARRI base imponible  
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA (OZ) impuesto sobre el patrimonio (IP)  
ONDASUN BEREIZKETARA KO ERREGIMEN EKONOMIKO régimen económico de separación de bienes

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com

**TAXILON**



661 202 249  
(9 plaza)

Lontxo  
Otamendi  
Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz



**urrutia**  
enea

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

**ARRIBE**

**ADIII TLF BERRIA:**  
948 51 30 32



panaderia okindegia

**GALBURUeco**

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42

# MIREN AGUR MEABErekin

## Maiatzak 14, asteartea

18:00etan Larraungo AEK Euskaltegian

Literatur  
Solasaldia



### SALGAI

Elurretara joateko buzoa salgai. Txukun-txukuna, ia erabili gabea. Taila: 4 urte. 10 eurotan salgai. Interesa baduzu deitu 639 861 257 telefonora.

Egurrezko estufa berria saltzen da oso prezio onean. Ia erabili gabea. (948 504 179 /610 144 35).

Ura beretzeko gasoliozko galdara salgai, 800 litroko deposituarekin. BAXIRO-CA-MOD-GAVINA 20 GTI SP. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646 870 837 (Bixente).



### BESTERIK

Belarra zabaldu eta iraultzeko 2 errotoreko bolteadora baten bila nabil (679 092 896).

**ekin**  
rotulacion  
948 85 32 79

SAN MIGUEL  
gasolindegia  
  
Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu

**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik  
ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA  
LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*  
24 ORDUKO TELEFONOA  
• 948 19 70 70 •  
www.tanatoriosirache.es

*aek*  
**21. korrika**

2019ko apirilaren 4tik 14ra **GARESTIK GASTEIZA**



**Kliika**